

Oposiciones docentes 2022 / 2022 Irakasle oposizioak		
Cuerpo / Kidegoa:	Especialidad / Espezialitatea:	Idioma / Hizkuntza:
590	LPO / FOL	Euskara

1. ARIKETA (2 puntu)

Ainara Jurio Gelbentzuk Mekatronikako Goi Mailako zikloa amaitu du 2022ko ekainaren 15ean. Prestakuntza duala Noaingo INDARMEK kooperatiban egin du. Ainararen IFZ 13.896.457D da eta bere GS-ko afiliazio zenbakia 31/00003. Ainarari 5. kotizazio taldea dagokio

Kooperatiba honek 8 bazkide ditu eta besteren konturako langile bat. Langile honek, Aitor, kontratu mugagabea du eta Mekatronikako Goi Mailako zikloa ikasi zuen Ainararen institutu berean..

INDARMEKen IFZa 31/4567 da eta GSko kotizazioaren kontu-kodea 31/66777 LI eta LG: 2%. Datoren bat falta baduzu asma dezakezu.

Kurtsoan zehar Ainarak, prestakuntza duala egin du INDARMEK kooperatiban berariazko lankidetzaren hitzarmen baten bidez, Lanbide Heziketa Dualari dagokion prestakuntza-programa egiteko. Ainarak 450 euro jaso ditu hilean beka baten bidez.

Titulua lortu ondoren, ekainaren 17an lanean hasi da INDARMEK kooperatiban praktika profesionala lortzeko prestakuntza-kontratu baten bidez kontratatu dutelako.

Enpresak egungo lan-maila izaten jarraitzen badu, praktika profesionala lortzeko prestakuntza-kontraturako ezarritako gehienezko denbora amaitzean, kontratu mugagabea egitea balioetsiko dutela adierazi diote Ainarari, Aitorrekin egin zuten bezala.

Ainarak % 40ko desgaitasuna aitortua du.

Oposiciones docentes 2022 / 2022 Irakasle oposizioak		
Cuerpo / Kidegoa:	Especialidad / Espezialitatea:	Idioma / Hizkuntza:
590	LPO / FOL	Euskara

Eskatzen da:

A) Ekaineko nomina egin, hileko ordainsariak honako hauek izango direla kontuan hartuta:

- Oinarrizko soldata 1.100€/hilabetea
- Txandakotasuna 200€/hilabetea
- Gaueko lana 50€ ekainean
- Hiru eguneko derrigorrezko prestakuntza-ikastaroa gaua pasatuz egiteagatik: 300€
- Dietak gauarekin. 80€/eguneko

Urtean zehar bi aparteko ordainsari jasotzen ditu, bata ekainean eta bestea abenduan.

B) Ainarari egingo dioten praktika profesionalerako prestakuntza-kontratuaren berezko ezaugarriak zerrendatu ezazu.

Enpresa: Helbidea: IFK: GSko kotizazioaren kontu-kodea:	Langilea: IFZ: GS-ko afiliazio zenbakia: Kotizazio-taldea:
---	--

Likidazio-aldia: 201...(e)koren(e)tik.....(e)ra **Egun guztiak:**

I. SORTZAPENAK

1. Soldatan jasoak

Oinarrizko soldata
 Soldata-osagarriak:

 Aparteko orduak.....
 Aparteko pagen haborokinak (paga ekstrak).....
 Gauzazko soldata.....

2. Soldataz kanpoko ordainak

Kalte-ordainak edo ordejarriak (aurrerakinak):

 Gizarte Segurantzako prestazioak.....
 Lekualdatze edo kaleratzeagatiko kalte-ordainak.....

A. SORTZAPENAK, GUZTIRA.....

II.KENKARIAK

1. Gizarte Segurantzarako kotizazioak:

Kontingentziaarruntak %.....
 Langabezia..... %.....
 Lanbide Heziketa..... %.....
 Aparteko orduak
 Ezinbestean %.....
 Egiturazkoak eta ez egiturazkoak %.....

EKARPENAK, GUZTIRA.....

2. PFEZ..... %.....
3. Aurrerakinak
4. Gauzatan jasotako produktuen balioa.....
5. Beste kenkari batzuk.....

B. KENTZEKO, GUZTIRA.....
JASOTZEKO LIKIDOA, GUZTIRA (A-B).....

Enpresaren sinadura eta zigiluako Jaso dut

III. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIO-OINARRIETARAKO, BATERAKO BILKETAKO KONTZEPTUETARAKO, PFEZrako ATXIKIPENERAKO OINARRIRAKO ETA ENPRESAREN EKARPENETARAKO KALKULUAK

	OINARRIAK	TASA	ENPRESAREN EKARPENA
1.Kontingentzia arruntak			
Hileko soldata.....			
Aparteko pagen hainbanapena			
GUZTIRA.....			
LI eta LG.....			
2.Kontingentzia profesionalak eta baterako bilketako kontzeptuak			
Langabezia			
Lanbide heziketa			
Soldatak bermatzeko funtsa (FOGASA)			
Aparteko orduengatiko kotizazio-gehigarria...			
PFEZrako atxikipenerako oinarria.....			

Oposiciones docentes 2022 / 2022 Irakasle oposizioak		
Cuerpo / Kidegoa:	Especialidad / Espezialitatea:	Idioma / Hizkuntza:
590	LPO / FOL	Euskara

1. Atxikipen-portzentajeen taula orokorra.

RENDIMIENTO ANUAL	NÚMERO DE HIJOS Y OTROS DESCENDIENTES										
EN EUROS	Sin hijos	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10 o más
Más de 11.250	4,0	2,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Más de 12.750	6,0	4,0	2,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Más de 14.250	8,0	6,0	4,0	2,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Más de 16.750	10,0	8,0	6,0	4,0	1,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Más de 19.750	12,0	11,0	9,0	7,0	6,0	4,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Más de 23.250	13,5	12,2	11,5	8,7	7,7	5,7	3,6	0,0	0,0	0,0	0,0
Más de 25.750	14,6	13,3	12,6	9,9	9,2	7,8	5,8	3,8	0,8	0,0	0,0
Más de 28.250	15,8	14,5	13,7	12,4	10,7	8,9	7,9	5,9	3,9	0,9	0,1
Más de 32.250	17,0	16,0	15,0	13,6	12,5	10,8	10,0	8,0	7,0	5,0	2,0
Más de 35.750	18,1	17,1	16,5	14,7	14,0	13,3	12,2	10,2	9,1	7,1	6,1
Más de 41.250	20,0	19,0	18,3	16,9	16,2	15,5	13,7	12,4	11,3	10,2	9,2
Más de 48.000	22,1	21,5	20,9	18,9	18,3	17,7	16,6	15,6	14,5	13,4	12,3
Más de 55.000	24,1	23,5	23,0	22,0	21,5	20,9	19,8	18,7	17,7	16,6	15,0
Más de 62.000	26,1	25,5	24,5	24,0	23,5	22,9	21,9	21,4	19,8	18,7	17,2
Más de 69.250	28,3	27,7	27,0	26,6	25,5	25,0	24,4	22,9	21,8	20,3	19,3
Más de 75.250	29,6	29,2	28,3	27,3	27,2	26,2	26,1	24,5	23,4	22,3	21,3
Más de 82.250	30,8	30,5	30,0	29,4	29,0	28,3	27,7	26,6	25,6	24,5	23,9
Más de 94.750	32,2	31,7	31,2	30,8	30,4	30,0	29,5	28,9	27,8	26,8	25,7
Más de 107.250	33,5	33,0	32,6	32,3	32,0	31,5	31,0	30,0	29,5	28,5	28,0
Más de 120.000	35,1	34,8	34,6	34,0	33,5	32,9	32,4	31,3	30,7	29,7	29,1
Más de 132.750	36,2	36,0	35,8	35,0	34,5	33,9	33,4	32,8	32,0	31,0	30,0
Más de 146.000	38,0	37,5	37,0	36,5	35,5	34,9	34,4	34,0	33,5	32,0	31,5
Más de 200.000	40,0	39,8	39,4	39,0	38,5	38,0	37,5	35,5	34,5	33,7	33,0
Más de 280.000	42,0	41,5	41,2	40,8	40,0	39,5	39,0	37,0	36,0	35,2	34,5
Más de 350.000	43,0	42,9	42,8	42,5	41,5	41,0	40,5	38,5	37,5	36,7	36,0

2. Jardunean izan eta desgaitasuna duten langileei goiko 1. idatz-zatian ezarritako taulan dagokien atxikipena eginen zaie, baina ondoko eskalan ageri den koefiziente murriztailea aplikatuta:

URTEKO ETEKINAK (euroak)		DESGAITASUN GRADUA	
Zenbateko honetatik	Zenbateko honetara	100eko 33 edo gehiago	100eko 65 edo gehiago
11.250,01	23.250	5	15
23.250,01	41.250	3	15

URTEKO ETEKINAK (euroak)		DESGAITASUN GRADUA	
Zenbateko honetatik	Zenbateko honetara	100eko 33 edo gehiago	100eko 65 edo gehiago
41.250,01	94.750	2	8
94.750,01	Hortik gora	2	5

Oposiciones docentes 2022 / 2022 Irakasle oposizioak		
Cuerpo / Kidegoa:	Especialidad / Espezialitatea:	Idioma / Hizkuntza:
590	LPO / FOL	Euskara

2. ARIKETA (2 puntu)

ABIAN, S.A. enpresak, altzariak egiten ditu eta 2021eko abenduaren 31an, ondorengo ondare elementuak ditu eurotan:

- Biltegian duen egurra: 15.000€
- Saltzeko prest dituen altzariak: 20.000€
- Bezeroek ordaindu behar diotena: 16.000€
- Egurra saldu dionari zor diona: 35.000€
- Aurtengo urrian bankuak utzi dion mailegua, 20 hilabete barru itzultzeko: 80.000€
- Enpresan dauden egurra lantzeko makinak: 50.000€
- Bulegoko altzariak: 40.000€
- Eraikina: 190.000€
- Bezero batek ordaindu behar dion kanbio-letra: 5.000€
- Enpresako kutxan daukan dirua: 2.000€
- Gizarte Segurantzarekin zorra: 1.800€
- Bulegoan dituen ordenagailuak: 9.000€
- Ekitaldiko emaitza: 25.000€
- Tresneria: 14.000€
- Erreserba legala: 38.000€
- Zerbitzu-emateengatik hartzekodunak: 6.000€
- Ogasun publikoak BEZagatik Abiatu S.A.ri dion zorra: 1.200€
- Langile bati emandako ordainsari-aurrerakina: 1.600€
- Banku baten kontu korrontean daukan dirua: 20.000€
- Ibilgetu materialaren amortizazio metatua: 30.600€.

a) Egin egoera-balantzea ondare masetan sailkatuz elementuen izen normalizatuak erabiliz.

b) Enpresaren analisi finantzarioa egin:

(i) Maniobra-funtsa definitu, kalkulatu eta analisisia egin.

(ii) Ondorengo ratioak kalkulatu eta emaitzak interpretatu:

- Altxortegi/ diruzaintza ratioa.
- Likidezia-ratioa.
- Berme-ratioa.
- Zorpetze-oso ratioa

Oposiciones docentes 2022 / 2022 Irakasle oposizioak		
Cuerpo / Kidegoa:	Especialidad / Espezialitatea:	Idioma / Hizkuntza:
590	LPO / FOL	Euskara

3. ARIKETA (2 puntu)

Enplegu bat eskuratzea ez da batere erraza izaten. Enplegua bilatzeak planifikazioa eta antolaketa eskatzen ditu. Planifika ezazu nola landuko zenuke lan bilaketaren prozesua zure ikasleekin .

Gelaren ezaugarriak honako hauek dira: Goi mailako zikloa, 15 ikasle, hauetatik 3 etorkin eta 2 lanean ari diren ikasleak.

Planteamendu horretan, ondorengo atalak azaltzea eskatzen da:

- A. Lortu nahi diren helburu didaktikoak.
- B. Erabiliko den metodologia.
- C. Burutuko diren jarduerak, beraien kronologia eta erabiliko diren errekurtso eta tresnak.

Oharra: Zure planteamendurako beharrezkoa duzun informazio gehigarria asma dezakezu.

Oposiciones docentes 2022 / 2022 Irakasle oposizioak		
Cuerpo / Kidegoa:	Especialidad / Espezialitatea:	Idioma / Hizkuntza:
590	LPO / FOL	Euskara

4. ARIKETA (2 puntu)

Irakur ezazu ondorengo egoera:

- Kepa, jakin duzu duela hilabete batzuk sute bat izan genuela eskolan?
- Ez esan, a ze sustoa!
- Ez nukeen inoiz imajinatuko su batengatik antolatu daitekeen istilua.
- Baina, zer gertatu zen? Kontatu, kontatu...
- Bada, Izarok, automobilgintza ere egiten duen ikaskideak, kea eta sugar txikiak ikusi zituela praktika-laboregitegitik gertu dagoen korridore bateko panel elektriko batetik irteten. Oso izututa sartu zen klasean korrika, eta ikusitakoa azaldu zion irakasleari.
- Eta zer egin zenuten?
- Irakasleak berehala hartu zuen telefonoa, eta zer gertatzen zen azaldu zion Maite Larrialdi Planaren arduradunari. Gero oihu egin zigan:
- Azkar! Irten eskolatik ate nagusitik eta Instituto aurrean dagoen plazan elkartuko gara
- Ezin duzu imajinatu nolako iskanbila sortu zen! Mundu guztiak izan nahi zuen irteten lehena, eta irakasleak berak ere telefonoa eskegi gabe utzi zuen.
- Geroago jakin genuen 1. solairuko ikaskideen ondoren irten behar genuela.
- Korridorean geundela, alarma hasi zen. Une hartatik aurrera jendea agertu zen nonahi; Irenek kaxa bat topatu zuen korridorearen erdian, eta bultzadak eta estropezuak etengabeak ziren. Jon eta Elena igogailutik jaitsi ziren...
- Ander komunean zegoen eta ez zen ezertaz enteratu. Irten zenean, Eneko bakarrik gelditzen zen klasean, zuk dakizun bezala pasota bat da, eta uste izan zuen gauza hura ez zela hainbesterako.

Oposiciones docentes 2022 / 2022 Irakasle oposizioak		
Cuerpo / Kidegoa:	Especialidad / Espezialitatea:	Idioma / Hizkuntza:
590	LPO / FOL	Euskara

- Norbaitek suhiltzaileei deitu zien, ezta?
- Bai, bai, Maitek egin zuen, eta gainera irakasle talde bat sua kontrolatzen saiatu zen eskolan dauden su-itzalgailuekin.
- Baina, azkenean, inork minik hartu al zuen?
- Ez, baina ezbeharren bat gerta zitekeen.
- Plazara iritsi ginenean, ikasleen erdiak bakarrik geunden; talde bat tabernara joan zen eta beste batzuk eskolako patiora joan ziren. Ezinezkoa izan zen zenbaketa egitea.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, honako hau eskatzen da:

- a) Aipatu itzazu zeintzuk izan diren gaizki eta egoki jarraitutako jarrerak.
- b) Adierazi sute baten aurrean kontuan izan beharko diren jokabide egokiak.
- c) Horrelako egoera berriro gerta ez dadin, proposatu egin beharreko plangintza jarduerak azalduz
- d) Larrialdi-plana eta autobabeserako plana, bi dokumentu tekniko desberdin diren arren, nahasmena sor dezakete, batzuetan, kontzeptu horiek berdin erabiltzen dituztelako. Azaldu larrialdi-plan baten eta autobabes-plan baten arteko aldeak, arautegia, etab.

Oposiciones docentes 2022 / 2022 Irakasle oposizioak		
Cuerpo / Kidegoa:	Especialidad / Espezialitatea:	Idioma / Hizkuntza:
590	LPO / FOL	Euskara

5. ARIKETA (2 puntu)

GERIZPE garagardoak eskuz egiten dituen enpresa da. Bere salmentak 6 botilatxoko packetan egiten dira. Garagardoak latan ontziratzeke makina automatizatu bat erostea pentsatzen ari dira, dagoeneko oso ezaguna den formatu bat, garagardoa oso ondo kontserbatzeko aukera ematen duena eta garraiatzeko problemarik ematen ez duena. Bestaldetik birziklatzeko ezin hobe da.

GERIZPEk Makina hori eskuratzeko, jarraian aurkezten diren bi inbertsio-aukerak ditu:

1.- A inbertsioak 205.000€ balio du. Aurreikuspenen arabera, hurrengo hiru urteetan kutxa-fluxu garbiak hauek izango lituzke: 60.000€, 90.000€ eta 120.000€. Bigarren urtean 4.000€ko ordainketa gehigarri bat izango luke eta azken urtean inbertsioaren hondar balioa 6.000€ izango da.

2.- B inbertsioak 245.000€ balio du. Iraupena 3 urtekoa da, eta datu hauek ditugu:

	1. urtea	2. urtea	3. urtea
Kostu osoa	140.000€	170.000€	188.000€
Unitateko salmenta prezioa	10€	12€	13€
Salgutako unitateak	24.000	25.000	26.000

Oposiciones docentes 2022 / 2022 Irakasle oposizioak		
Cuerpo / Kidegoa:	Especialidad / Espezialitatea:	Idioma / Hizkuntza:
590	LPO / FOL	Euskara

Kontuan hartuta inflazio-tasa %2 izango dela urtez urte eta lortu nahi den errentagarritasun minimoa %5 dela:

- a) Zein inbertsio aukeratu beharko luke berreskuratze-epearen irizpidea (Pay Back irizpidea) erabiliz gero? Arrazoitu erantzuna
- b) Eta zein inbertsio aukeratu beharko luke balio eguneratu garbiaren irizpidearen arabera (BEG irizpidea)? Arrazoitu erantzuna
- c) Bi irizpideetatik (BEG edo Pay Back), zein da egokiena? Zergatik?
- d) Bi aukera aztertu ondoren, Gerizpen crowdfundingari buruz zerbait entzun dute, baina ez dute bat ere garbi hori zer den eta beraientzat baliozkoa den zerbait ote den.

Crowdfundinga zer den azaldu ezazu, eta GERIZPE enpresak crowdfunding kanpaina bat egin ahal izateko eman beharreko urratsak adierazi eta adibididekin osatu.